

ITSASERTZA

BIZKAIA



B•6 Plentziako itsasadarra

Butroi ibaia aldapa txikiko eremuetatik igarotzen da eta, beraz, mantso mugitzen da bide batez nekazaritza eta abeltzaintzako ibarbide zabal bat marrazten duten meandroak sortuz; ibarbide horretan zenbait enklabek ibaiertzeko jatorrizko basoa mantentzen dute. Ibaia azken zatian, Butroitik Plentzian itsasoratzen den arte, haran ireki eta padura zabal bat eratu ditu.

Gaur egun estuarioa oso aldatuta dago, gizakiaren presioak gune horretan izan duen eragin handia dela eta, baina Txipion oraindik gordetzen dira padurako landarediaren eremu handi batzuk. Edertasun handiko paisaia da, hegazti—kopuru handi batentzat migrazioarako atsedeneku bihurtu dena. Butroiko Gazteluaren eremua eta Plentziako hirigunea dira inguru honetako ondare nagusiak.



B•7 Itsasertzeko Gorliz— —Armintza zatia

Kostaldeko eremu txiki honetan, Gorlizeko Astondo muturretik Armintzako badiaraino, euskal itsasertzaren adierazgarri diren habitat- eta gorabehera—mota ugari biltzen dira: Gorlizeko dunen gunea, harrigarria bada ere turismoaren eraginetik aske geratu dena, Kantauriko zenbait artadi, inguruko jatorrizko landarediaren lekuko lirakeenak, itsaslabarrak eta itsasertzeko hegalak, berez klima epelagoetan bizi diren garo bitxien multzo bakan batzuekin, Hainbat kala eder, esaterako, Armintzakoa, eta itsasoko zenbait hegaztien hazkuntza—toki den Billanoko uhartea.

B•8 Mendexa eta Ondarroaren arteko kostaldeko ibarbideak

Kostaldeko zati honek barnean hartzen ditu inguruko errekek hondeatu eta zuzenean itsasora isurtzen dituzten ibarbide batzuk.

Azkar hazten diren espezieek berritutako baso—eremu bat da; horiek gune osoa betetzen dute ibaiertzera ino bertaraino eta, beraz, jatorrizko landaredia urria da. Baldintza gogor horietan bereziki interesgarriak diren klima beroetako garo—populazio batzuk daude. Itsaslabarren lerroan itsasoko hegaztien zenbait kume—kolonia topatu dira eta arroak banatzen dituzten goraguneetan, aldiz, landazabaleko hainbat eremu daude landa—auzoen artean.